



ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN ARGAZKI LEHIAKETA ONDAREA KLIK BATEAN

Bizkaiko Foru Aldundiaren, Igerrak (Euskal Instagram Komunitatea) eta Ondare lagunak taldearen eskutik, Instagram eta Facebook bidezko argazki lehiaketa aurkezten dugu.

Ondarearen Europako Jardunaldiak urriaren 1etik 31ra bitartean ospatuko dira. Honen inguruan ekitaldi pila egingo dira Bizkaiko ondarea plazara eramateko. Testuinguru honetan, hurrengo argazki lehiaketa antolatu dugu:

ONARRIAK

Argazki mota

Plaza, antzoki, pilotaleku, zezen-plaza, probalekua, musika-kiosko eta elizpeak, musika, dantza, joko, kirol eta erromeriekin betetzen dituen Bizkaiko ondarea, argazkien bidez erakutsi dezazuela nahi dugu.

Nola parte hartu?

Facebook edota Instagramera argazkiak igo behar dira hurrengo traolak erabilita:

- #OndareaBizkaia2019

- #Igerrak_OndareaBizkaia2019

Nork hartu dezake parte?

- 18 urte edo gehiagoko herritarrek, baldin eta ez badira IGERRAK, ONDARE LAGUNAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO langile edota ahaide hurbilak.
- Jardunaldietako ekintzetan parte hartu eta argazkiak egiten dituen edonor.
- Bizkaiko "Ondarea Plazara" islatzen duten edozein argazki, nahiz eta jardunaldietan parte hartu ez.

Epea

Urriaren 1etik 31ra. Biak barne.

Sariak

3 argazkirik onenak ondorengo sariak eramango dituzte bakoitzak.

Irabazleak aukeratutako Euskalduna Jauregiko ikuskizun baterako 2 sarrera.

Bizkaiko Foru Aldundiako museo sarerako 2 pertsonentzako gonbidapenak.

Liburu sorta.

Gainera, argazkirik onenekin erakusketa bat egingo da Bizkaikoa sareko museo baten.

Epai mahaia

Epai mahai bat ezarriko da. Honen barnean: igerraken arduradunak, Ondarea Bizkaia, eta Ondare Lagunak parte hartuko dute.

Baldintzak

- Instagram edo Facebook sare sozialeetan norberaren profilaren bidez parte hartu.
- #OndareaBizkaia2019 eta #Igerrak_OndareaBizkaia2019 traolak erabiltzea argazki oinean.
- Argazki berriak zein zaharrak izan daitezke, beti ere zaharretan iruzkin bidez argazkiaren deskribapena eta traolak agertu badira.
- Instagram-en @OndareabBizkaia, @OndareLagunak eta @Igerrak erabiltzaileak jarraitzeta gonbidatzen zaituegu.